


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**URBIETA 22**

Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1888

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituen, gehi 1956ko hiru jasodura; lehena, fatxada planoan (jatorrizko oin mantsardatua ordezkatzuz edo eraldatuz), bigarrena, pixka bat atzeraemana eta, hirugarrena, estalkipeko oin mantsardatu gisa. Goi oinetan harlangaitz entokatuko fatxada, zeramikaz apaindutako inpostekin, eta behe oinean hareharrizko harlanduzko fatxada (kantoiko lokalaren zati batean silarriz berritua dagoela dirudi). Kantoiko alakan 1956ko hormigoizko begiratoki bat du (jatorrizko zurezkoak ordeztzen dituena). Jatorrizko proiektu komuna San Martin 36rekin.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako bakoaren konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (5., 6. eta 7. goi oinak).
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.